OÑATIKO UDALA
Telefonoa: 78 04 11
Fax: 78 30 69
20560 OÑATI

**Ayuntamiento de Oñati**

**Anuncio**

El Ayuntamiento de Oñati reunido en Junta de Gobierno de fecha 1 de marzo de 2012, adoptó el siguiente acuerdo:

**Bases para la concesión de subvenciones a las actividades y programas desarrollados el año 2012 por grupos juveniles sin ánimo de lucro del municipio de Oñati**

**Primero: Objeto.**

El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de subvenciones a los grupos juveniles del municipio, sin ánimo de lucro. El interés de las actividades y programas a desarrollar durante el año 2012 por los grupos deberá ser acorde con los objetivos de los programas de la Comisión de Infancia y Juventud municipal.

Las subvenciones se concederán de acuerdo con los siguientes apartados:

- Programación anual - Promoción de las asociaciones.
- Creación cultural y difusión.
- Compra y renovación de material.
- Actividades no-habituales.

**Segundo. Financiación.**

Las partidas presupuestarias correspondientes a los distintos capítulos correrán a cargo de los presupuestos del Ayuntamiento. Las distintas dotaciones estarán recogidas en el presupuesto de 2012 y serán las cantidades máximas que el Ayuntamiento concederá.

El reparto de las subvenciones previstas en estas bases queda sometido a la aprobación y entrada en vigor de los presupuestos de 2012.

**Oñatiko Udala**

**Iragarkia**

Oñatiko Udala, 2012ko martxoaren 1ean egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak ondorengo akordioa onartu zuen:

**Oñatiko udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte taldeek 2012. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauei dirulaguntzak emateko oinarriak**

**Lehena. Helburua.**

Deialdi honen helburua udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte taldeei eskainitako dirulaguntzen eskaera eta esleipen prozesua arautzea da. Taldeek 2012 urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauen interesa Udal Haur eta Gazte Batzordeak dituen egitarauen helburuekin bat etorriko da.

Dirulaguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira:

- Urteko programaketa - Elkarteen sustapena.
- Kultur sormena eta hedapena.
- Materialaren erosketa eta eraberritzea.
- Ez-ohiko jarduerak.

**Bigarrena. Finantzaketa.**

Udal aurrekontutik bideratuko dira aipatu diren atal bakoitzerako partidak. Dotazioak 2012. urterako onartzen den aurrekontuan azalduko dira, eta horiek izango dira Udalak gehienera emango dituen dirulaguntzen zenbatekoak.

Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzen banaketa, 2012. urteko ekitaldirako udal aurrekontua onartzearen eta indarrean sartzearen baldintzapean dago.

**Tercero. Solicitantes.**

Podrán solicitar estas subvenciones las asociaciones, grupos o particulares de Oñati sin ánimo de lucro y de carácter juvenil.

Será condición suficiente para solicitar subvención el hecho de que la mitad del grupo solicitante o el solicitante particular sea empadronado en Oñati y tenga entre 12-30 años de edad.

Estas subvenciones serán compatibles con otras posibles subvenciones que puedan recibirse.

**Cuarto. Solicitudes.**

Condiciones a cumplir por los solicitantes:

1.- Habrá de cumplimentarse el impreso de solicitud oficial. Puede recogerse en el Punto de Información Juvenil del Gazteleku.

2.- El representante o responsable del programa o actividades objeto de la solicitud de subvención tendrá que cumplir la totalidad de los capítulos que figuran en el impreso de solicitud.

3.- El plazo de presentación de solicitudes finaliza a los 30 días de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Guipúzcoa. En el caso de las subvenciones a la creación y difusión, se contará con un segundo plazo dentro del anterior: de veinte días a partir del 15 de octubre (siempre que se cuente con dotación económica).

4.- Documentación a presentar junto con las solicitud:

- Currículo del grupo: actividades realizadas hasta la fecha, objetivos, medios materiales...
- Fotocopia del DNI del responsable del grupo.
- -Habrá que rellenar una ficha para cada una de las actividades que presente el grupo, en la que se detallen el presupuesto anual del programa o actividad, plazos y fechas previstas y objetivos.

En caso de que el solicitante sea una

**Hirugarrena. Eskatzaileak.**

Dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko Oñatiko erakunde, talde edo norbanakoek eskatu ahal izango dituzte, gazte mailakoak.

Deialdi honetara aurkezteko nahikoa izango da talde eskatzailearen erdiak edota banakako eskatzaileak 12 - 30 urte bitartekoak eta Oñatin erroldatutakoak izatea.

Jaso daitezkeen beste dirulaguntzekin bateragarri izango dira honako dirulaguntza hauek.

**Laugarrena. Eskaeren aurkezpena.**

Eskatzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Dirulaguntzak eskatzeko Eskaera Fitxa idazki ofiziala bete beharko da. Idazkia Gazte Informazio Bulegoan jaso daiteke.

2. Dirulaguntza eskaeraren xede den programa edo jardueraren ordezkariak edo arduradunak eskaera-idazkian azaltzen diren atal guztiak bete beharko ditu.

3. Eskaerak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egunetara bukatuko da. Kultur sormena eta hedapenagatik eskatuko diren dirulaguntzen kasuan, deialdi beraren barruan epe bat gehiago egongo da: urriaren 15etik hasita, hogei egunekoa, hain zuzen (aurrekontuan dotaziorik balego).

4. Eskaerarekin batera jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- Taldearen currikulum-a: orain arte egindako jarduerak, helburuak, baliabide materialak...
- Taldearen arduradunen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Taldeak aurkezten duen egitarau bakoitzeko Eskaera Fitxa bat bete beharko du, non egitarau edo jardueraren urteko gastu-sarreren aurrekontua, aurreikusten diren epe eta datak eta helburuak zehaztuko diren.

Eskatzailea erakunde, talde edo elkartea bada, eta

institución, grupo o asociación y reciba subvenciones superiores a 1.500 euros, también deberá presentar las siguiente documentación:

-Documento que acredite que la institución, grupo o asociación se encuentra registrado en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.
- Estatutos del grupo.
- Fotocopia del Código de Identificación Fiscal.

**Quinto. Criterios de evaluación y adjudicación.**

La Comisión de Infancia y Juventud estudiará las solicitudes y podrá pedir los informes que considere necesarios. Será la Junta de Gobierno Local quien adopte el acuerdo a propuesta de la Comisión de Infancia y Juventud, que adoptará el correspondiente acuerdo previo.

1.- Aspectos que se valorarán para la concesión de las subvenciones y constarán en las fichas que se adjunten a la solicitud:

- Calidad de la actividad o programa, número de actos, etc.
- Contribución del grupo solicitante mediante sus actividades a la promoción del movimiento socio-cultural del municipio y participación en las iniciativas de interés de la Comisión de Infancia y Juventud.
- Estabilidad y continuidad del grupo en su labor.
- Dirigir a todos los jóvenes del municipio el desarrollo de sus actividades.
- Fomentar el uso del euskera.

2.- Cantidades máximas a conceder en cada convocatoria:

*.- Programación anual - promoción de las asociaciones:*

Ayudas a las actividades o programas de asociaciones juveniles.

La subvención a conceder no superará el 50% del presupuesto de la actividad, salvo en casos excepcionales. En ese caso se podrá conceder una cantidad superior previa propuesta

1.500 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen baditu, beste agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Erakunde, talde edo elkarte eskatzailea Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan izena emanda duela adierazten duen agiria.
- Taldearen estatutuak.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

**Bosgarrena. Ebaluaketa eta esleipen irizpideak.**

Haur eta Gazte Batzordeak eskaerak aztertuko ditu, eta egokitzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu. Haur eta Gazte Batzordeak Tokiko Gobernu Batzordeari akordio proposamena aurkeztuko dio, honek onartzeko erabakia har dezan.

1. Dirulaguntzak ematerakoan ondorengo puntuak hartuko dira kontuan, eskaerarekin batera aurkeztuko diren jarduera fitxetan azalduko direnak:

- Egingo den jarduera edo egitarauaren kalitatea, ekintza kopurua, etab.
- Talde eskatzaileak urtean zehar aurrera daramatzan lanak herriko giza-kultur mugimendua sustatzen laguntzea eta Haur eta Haur eta Gazte Batzordearen intereseko ekimenetan partehartzaile izatea.
- Taldeak bere lanean erakusten duen jarraipena eta egonkortasuna.
- Garatutako jarduerak herriko gazte guztiei zuzentzea.
- Taldeak bere lanean euskararen erabilpena sustatzea.

2. Deialdi bakoitzean gehienera eman ahal izango diren dirulaguntzak honako hauek dira:

*.- Urteko programaketa - Elkarteen sustapena:*

Gazte Elkarteek aurrera eramaten duten programazioa edo jarduerak laguntzeko.

Proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren %50a gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan, Haur eta Gazte Batzordeak behar bezala

debidamente justificada de la Comisión de Infancia y Juventud.

- *Creatividad cultural y difusión:*

Este capitulo comprenderá los proyectos de las áreas de cultura y arte, proyectos de creación y difusión que despierten el interés especial de los jóvenes, tanto a nivel individual como de grupo. Sirvan de ejemplo:

.- Grabación y edición de maquetas de jóvenes músicos.
.- Edición de las publicaciones de cómic, fancine, y otra publicaciones juveniles.
.- Producción o representación de obras de teatro.
.- Producción de obras audiovisuales (cine, video) o relacionadas con nuevas tecnologías.

Esta línea de subvenciones puede solicitarse en grupo o individualmente. La mitad de los miembros del grupo solicitante o bien cada uno de los solicitantes individuales deberá tener entre 12-30 años de edad y sea empadronado en Oñati.

La subvención a conceder no superará el 50% del presupuesto de la actividad, salvo en casos excepcionales. En ese caso se podrá conceder una cantidad superior previa propuesta debidamente justificada de la Comisión de Infancia y Juventud.

*.- Compra o renovación de material:*

En este capítulo se incluye la compra de material necesario para el programa habitual del grupo y otras actividades, así como su renovación.

La subvención a conceder no superará el 30% del presupuesto de la actividad, salvo en casos excepcionales. En ese caso se podrá conceder una cantidad superior previa propuesta debidamente justificada de la Comisión de Infancia y Juventud.

*.- Actividades extraordinarias:*

Se considerarán actividades extraordinarias aquellas actividades o programas que siendo acordes con los objetivos de la asociación no se hayan previsto o incluido en la programación anual.

justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

.- *Kultur sormena eta hedapena:*

Atal honetan sartuko dira kultura eta arteen arloan egindako proiektuak, gazteen interesa eta grina berezia islatzen duten sormeneko eta hedapeneko proiektuak, banaka zein taldeka. Adibide gisa jarraian zerrendatzen direnak:

.- Musikagileen maketen grabaketa eta edizioa.
.- Komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa.
.- Antzezlanen produkzioa edota irudikapena.
.- Ikusentzutezko lanen produkzioa (zinea, bideoa) edo teknologia berriekin erlazionaturikoak.

Dirulaguntza lerro hau bai taldeka baita banaka ere eska daiteke. Talde eskatzailearen kideen erdiak gutxienez edota banakako eskatzaileak 12 - 30 urte bitartekoak eta Oñatin erroldatutakoak izan beharko dute.

Proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren %50a gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan, Haur eta Gazte Batzordeak behar bezala justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

*.- Materialen erosketa eta eraberriketa:*

Atal honetan sartuko dira taldeak ohikoak diren programa eta jardueretako beharrezkoa duen materialen erosketa eta eraberriketa.

Proposatzen den dirulaguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren %30a gaindituko, aparteko kasuetan izan ezik. Horietan Haur eta Gazte Batzordeak behar bezala justifikatutako proposamena egin ondoren, kopuru handiagoa eman ahal izango da.

*- Ez ohiko jarduerak:*

Ez ohiko programak eta jarduerak izango dira elkartearen helburuarekin bat etorri eta urteko programaketan sartu edo aurreikusi ez direnak.

La suma de todas las subvenciones especiales no podrá superar el 6% del presupuesto. A cada individuo se le concederá como máximo el 2% del presupuesto.

Ez ohiko dirulaguntza guztien batuketak, ezingo du aurrekontuaren %6a gainditu. Eta norbanakoari, gehienez, aurrekontuaren %2a emango zaio.

**Sexto. Pagos.**

Las subvenciones se abonarán una vez entregadas las fichas de evaluación de las actividades subvencionadas y redactado el informe favorable por parte del/la concejal correspondiente de la Comisión de Infancia y Juventud.

La ficha de evaluación comprenderá lo siguiente:

.- Balance general de gastos junto con las copias de las facturas; en el mismo se incluirá la documentación gráfica que acredite la realización de las actividades programadas (carteles, folletos, notas de prensa, etc.). Eso último valdrá como prueba de la realización de la actividad. Si no se presenta esta documentación se perderá la subvención aprobada.

**Seigarrena. Ordainketa.**

Subentzionatutako egitarauen Ebaluaketa Fitxak entregatu eta Haur eta Gazte Batzordeko zinegotziak dagokion aldeko txostena sinatu eta aurkeztu ondoren ordainduko dira automatikoki dirulaguntzak.

Aipatutako Ebaluaketa Fitxetan honako hauek sartuko dira:

.- Gastuen balantze orokorra, fakturen frogagiriekin batera; bertan eskatzen diren datuak eta programatutako jarduerak egin izana egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.). Azken hau jarduera egin izanaren ziurtagiri izango da. Dokumentazio hau aurkezten ez bada, automatikoki galdu egingo da onartutako zenbatekoa.

**Séptimo. Incumplimiento.**

El incumplimiento de las condiciones establecidas en estas Bases traerá consigo la retirada de la subvención y si es el caso, la devolución de la totalidad de las subvenciones concedidas.

**Zazpigarrena. Ez betetzea.**

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak dirulaguntza kentzea ekarriko du, eta hala badagokio, jasotako diru kopuru guztiak itzuli beharko dira.

**Octavo. Interpretación.**

Será el/la Presidente de la Comisión de Infancia y Juventud quien adopte la decisión en caso de dudas en la interpretación o desarrollo de estas bases.

**Zortzigarrena. Interpretazioa.**

Oinarri hauen interpretazio edo garapenean sor daitezkeen zalantzak Haur eta Gazte Batzordeko zinegotziak erabakiko ditu.

**Noveno. Silencio administrativo.**

En caso de no recibir respuesta respecto a la solicitud en el plazo de 60 días se entenderá que ésta se ha denegado.

**Bederatzigarrena. Isiltasun administratiboa.**

60 eguneko epean eskaerari buruzko erantzunik jasotzen ez bada, eskaera onartu ez dela ulertuko da.

**Décimo. Presupuesto.**

Dotación económica para la concesión de subvenciones reguladas en las presentes Bases: 10.000€.

**Oñati a 2 de marzo de 2011**
**El Alcalde**

**Hamargarrena. Aurrekontua.**

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza ekonomikoak emateko igorritako kredituen zenbatekoa hau da: 10.000,00euro.

**Oñatin, 2011ko martxoaren 2an**
**Alkateak**

**ANEXO 1** **1. ERANSKINA**

**FICHAS DE SOLICITUD DE SUBVENCIONES** **DIRULAGUNTZA ESKAERA FITXAK**

**OÑATIKO UDALERRIKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO GAZTE TALDEEK 2012. URTEAN HAUR ETA GAZTEENTZAKO JARDUERA ETA EGITARAUENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA FITXAK**

☐ Urteko programaketa - Elkarteen sustapena. ☐ Materialaren erosketa eta eraberritzea.
☐ Kultur sormena eta hedapenaren sustapena eta laguntza. ☐ Ez-ohiko jarduerak.

TALDE ESKATZAILEA

| **PROIEKTUARI BURUZKO DATU OROKORRAK** | |
|---|---|
| Proiektuaren izena: | Azalpena: |
| Noiz egingo den: | Helburuak: |
| Proiektuaren onuradunen gutxi gorabeherako kopurua: | Egingo den jarduera: |
| Laguntzaileak: | |
| Beharrezko azpiegitura eta baliabideak: | |
| Euskararen erabilera: | |

| **PROIEKTUAREN AURREKONTUA** | | | |
|---|---|---|---|
| **AURRIKUSITAKO GASTU ARRUNTA** | | **AURRIKUSITAKO DIRUSARRERAK** | |
| | | - Partaideen kuotak.<br>- Beste Instituzio publikoen laguntza.<br>- Bestelakoak. | |
| **GASTUAK, GUZTIRA** | | **DIRU-SARRERAK, GUZTIRA** | |

| SALDOA |
|---|

| |
|---|
| **OHARRA:** *Beharrezkotzat joz gero, aurkeztutako programari buruz informazio osagarria ere erantsi daiteke.* |

**FICHAS DE SOLICITUD DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES Y PROGRAMAS PARA JÓVENES EN EL AÑO 2012, POR PARTE DE GRUPOS DE JÓVENES DEL MUNICIPIO, SIN ANIMO DE LUCRO.**

☐ Programación anual- Promoción de las asociaciones. ☐ Compra y renovación de Material.
☐ Creatividad cultural y promoción de la difusión y ayudas. ☐ Actividades extraordinarias.

GRUPO SOLICITANTE .....................................................................

| **DATOS GENERALES RELATIVOS AL PROYECTO** | |
|---|---|
| Nombre del proyecto:<br><br>Fecha de realización:<br><br>Número aproximado de beneficiarios del proyecto:<br><br>Colaboradores:<br><br>Infraestructura y medios necesarios:<br><br>Uso del euskera: | Descripción:<br><br>Objetivos:<br><br>Actividad a realizar:<br><br>Cambios en el proyecto original: |

| **PRESUPUESTO DEL PROYECTO** | | | |
|---|---|---|---|
| **GASTO GENERAL PREVISTO** | | **INGRESOS PREVISTOS**<br><br>- Cuotas de participantes.<br><br>- Subvenciones de otras Instituciones Públicas.<br><br>- Otros. | |
| **TOTAL GASTOS** | | **TOTAL INGRESOS** | |

| SALDO |
|---|

**NOTA**: *Si se considera conveniente, puede adjuntarse documentación complementaria relativa al programa presentado*.

**ANEXO 2** **2. ERANSKINA**

**FICHAS DE VALORACIÓN DE SUBVENCIONES** **DIRULAGUNTZEN EBALUAKETA FITXAK**

**OÑATIKO UDALERRIKO IRABAZI-ASMORIK GABEKO GAZTE TALDEEK 2012. URTEAN SUSTATUTAKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO JARDUERA ETA EGITARAUENTZAKO DIRULAGUNTZEN EBALUAKETA FITXAK**

□ Urteko programaketa - Elkarteen sustapena □ Materialaren erosketa eta eraberritzea
□ Kultur sormena eta hedapenaren sustapena eta laguntza □ Ez ohiko jarduerak

TALDE ESKATZAILEA

| **PROIEKTUARI BURUZKO DATU OROKORRAK** | |
|---|---|
| Proiektuaren izena: | Azalpena: |
| Noiz egin den: | Egindako jarduerei buruzko balorazio orokorra: |
| Proiektuaren onuradunen kopurua: | Euskararen erabilera: |
| Laguntzaileak: | Jatorrizko proiektuari egindako aldaketak: |

| **DIRU-KONTUAK** | | | |
|---|---|---|---|
| **AURRIKUSITAKO GASTUAK** | | **EGIAZKO GASTUA** | |
| **GUZTIRA** | | **GUZTIRA** | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **AURRIKUSITAKO DIRU-SARRERAK** | - Partaideen kuotak.<br>- Beste Instituzio publikoen laguntza.<br>- Bestelakoak. | | **EGIAZKO DIRU-SARRERAK** | - Partaideen kuotak.<br>- Beste Instituzio publikoen laguntza.<br>- Bestelakoak. | |
| | **GUZTIRA** | | | **DIRU-SARRERAK, GUZTIRA** | |

**OHARRA:** *Dirulaguntza jaso ahal izateko aurkeztutako aurrekontuaren zenbateko osoari buruzko jatorrizko fakturak edo ordainketa agiriak fitxa honekin batera aurkeztea behar-beharrezkoa da. Halaber, subentzionatutako proiektuari buruzko egon daitekeen dokumentazio grafiko guztia aurkeztu beharko da.*

* Dirulaguntza jaso ahal izateko, kontu korronte zenbakia adierazi:

**FICHAS DE VALORACIÓN DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES Y PROGRAMAS PARA JÓVENES EN EL AÑO 2012, POR PARTE DE GRUPOS DE JÓVENES DEL MUNICIPIO, SIN ANIMO DE LUCRO.**

☐ Programación anual- Promoción de las asociaciones. ☐ Compra y renovación de material.
☐ Creatividad cultural y promoción de la difusión y ayudas. ☐ Actividades extraordinarias.

GRUPO SOLICITANTE ........................................................................................

| **DATOS GENERALES RELATIVOS AL PROYECTO** | |
|---|---|
| Nombre del proyecto:<br><br>Fecha de realización:<br><br>Número de beneficiarios del proyecto:<br><br>Colaboradores: | Descripción: |
| | Valoración general sobre la actividad realizada: |
| | Uso del euskera: |
| | Cambios en el proyecto original: |

| **DATOS ECONÓMICOS** | | | |
|---|---|---|---|
| **GASTOS PREVISTOS** | | **GASTO REAL** | |
| **TOTAL** | | **TOTAL** | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **INGRESOS PREVISTOS** | - Cuotas de los participantes.<br>- Ayudas de otras Instituciones Públicas.<br>- Otros. | | **INGRESOS REALES** | - Cuotas de los participantes.<br>- Ayudas de otras Instituciones Públicas.<br>- Otros. | |
| | **TOTAL** | | | **INGRESOS TOTALES** | |

**NOTA:** Será obligatoria la presentación de las facturas originales o recibos correspondientes a la

totalidad del presupuesto presentado, junto con esta ficha. Asimismo, habrá de presentarse toda la documentación gráfica existente referida a la actividad subvencionada.

* Número de cuenta corriente donde se ingrese la subvención: